eki PROIEKTUA

| | EUSkara eta Literatura | LENgua Castellana y Literatura | ENGlish | MATematika | GIZarte Zientziak | NATuraren Zientziak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikaslearen liburua | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Fitxa bilduma | ✓ | ✓ | | ✓ | ✓ | ✓ |
| Lan koadernoa | ✓ | ✓ | | ✓ | | |
| Ikaslearen liburu digitala: | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| - Audioak | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| - Bideoak | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| - Animazioak | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| - Fitxak | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| - Informazio testuak | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| - Konpetentzia digitala lantzeko jarduerak | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| - Jarduera osagarriak | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Irakaslearen gida | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |

ikaselkar
IKASELKAR argitaletxea • Tel. 943 225 876 • ikaselkar@ikaselkar.com • ikaselkar.com

# DBH

## 2013 / 2014 ikasturtea

**e**uskal Curriculuma
**k**onpetentzietan oinarrituta
**i**ntegrazioaren pedagogiaz

# eki PROIEKTUA

EUS LEN ENG MAT GIZ NAT

ikaselkar

eki PROIEKTUA

**eki** proiektua, Euskal Curriculuma garatzen duten ikasmaterialak

## euskal Curriculuma

### Euskara eta euskal kultura ardatz dituzten gazteak hezten laguntzeko.

2008an eta 2009an Euskal Herriko ikastetxe gehienek elkarrekin eraiki eta onetsi zuten Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculuma. IKASELKAR argitaletxeak, **eki** izeneko proiektuan, Euskal Curriculumaren garapen liratekeen ikasmaterialak sortu, ekoitzi eta eskaintzen ditu.

## konpetentzietan oinarritua

### Ikaslearen irteera-profila: eki proiektuaren abiapuntu eta helmuga.

Edozein bizitza-egoeratan konpetentea izatea lortu behar du ikasleak: pentsatzen eta ikasten, komunikatzen, elkarrekin bizitzen, norbera izaten eta egiten eta ekiten jakin behar du.

Ikaslea konpetentea izan dadin, **eki** materialek lau osagai kurrikular dituzte:

(1) Ardatza: Konpetentziak landuz ikasi eta irakasten da.
(2) Edukiak: Euskal kultur ibilbidean eta curriculum ofizialetan oinarritzen dira.
(3) Tresnak: Ikas arlo guztietan prozedura sistematizatuak errazten dira, ikasten eta egiten jakiteko.
(4) Eleaniztasuna: Euskara ardatz duen hizkuntzen planteamendu integratua egin da.

## integrazioaren pedagogiaz

### Egoerei irtenbideak aurkitzen ikastea, egoera berrietan ikasitakoa baliatzeko.

Benetako egoera esanguratsuen aurrean jarrita, ikasleek egoera horietan behar dituzten baliabideak bilatzen eta erabiltzen ohitu behar dute, irtenbideak aurkitzen saiatu, bakarrik eta lan taldean moldatu, arazoen soluzioa erdietsi eta egoera berrietan ikasi dutena baliatu.

**eki** material berriok Integrazioaren Pedagogia hautatu dute, irakasleek errazago irakasteko, ikasleek eraginkorrago ikasteko eta gurasoek prozesu horretan esku hartzeko.



eki PROIEKTUA

## Edizio euskarrien konbinazioa

### Papera eta Digitala batera.

Paperean:

- **Ikaslearen liburua**. Egunero ikasleak eta irakasleak lantzen dituzten unitate didaktikoak proposatzen ditu: konpetentziaren lorpenerako landu beharreko egoerak, hauek eskatzen dituzten eduki-baliabideak eta horien guztien ikaskuntza bideratzeko mota askotako jarduerak.
- **Ikaslearen fitxa bilduma**. Ikaslearen liburuan egin behar diren fitxak (txantiloiak, grafikoak, datu bilketak…) betetzeko edota eraikitzeko orrialdeak dira.
- **Ikaslearen lan koadernoa**. Euskara, Lengua Castellana eta Matematika arloetan lortu behar den konpetentziaren lanketan lagungarri gertatzen diren jarduera sistematikoak eskaintzen ditu.

Digitalean:

- **Liburu digitala**. Bide digitala egin nahi duenarentzat eskaintzen da. Ikaslearen paperezko liburuaren elementu berdinen gainean digitalizatuta dauzka audioak, bideoak, flashak, fitxak, kontsultarako informazio testuak, konpetentzia digitala garatzeko jarduerak eta helburu didaktiko bakoitzaren lorpenean sakontze-lana ahalbidetzen duten jarduera osagarriak.
- **Irakaslearen gida**. Curriculumaren diseinuaren ezaugarriak, arloen bigarren zehaztapen maila, unitate didaktikoak kudeatzeko ohar eta pista praktikoak (hirugarren zehaztapen maila) eta ebaluaziorako irizpideak, adierazleak eta tresnak.



## Lehena Europan

### XXI. mendeko hezkuntza berritzeko apustu euskalduna.

Europaren goi erakundeek abian jarri zuten hezkuntza-erreformaren osagai nagusiak eskaintzen ditu **eki** proiektuak:

- Bizitza osorako konpetentzietan oinarritua.
- Eleaniztasuna integratzen duena.
- Informazio eta komunikazio teknologiak (IKT) erabiltzen dituena.

Lehena da Europako argitaletxeen artetik eskaintza hori egiten, bereak dituen bi ezaugarrien baitan: INNOBAZIOA eta EUSKALDUNTASUNA.

**Informazioa + Prestakuntza + Aholkularitza Zerbitzua**

Agerraldiak (2013ko apirilean) • Materiala erabiltzeko ikastaroak (2013ko irailean eta 2014ko urtarrilean eta apirilean)